

**Azterketa kualitatiboa, datu  
babesaren eta gardentasunaren  
gainean herritarrek duten  
pertzepzioari buruz**

**Emaitzen txostena**

**(2014ko azaroaren 28a)**

Agencia Vasca de Protección de Datos - Datuak Babesteko Euskal Bulegoa  
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71-3. solairua  
01008 – VITORIA-GASTEIZ  
[avpd@avpd.es](mailto:avpd@avpd.es)  
[www.avpd.es](http://www.avpd.es)

Azterketa kualitatiboa, datu babesaren eta gardentasunaren gainean herritarrek duten  
pertzepzioari buruz  
Emaizten txostena.

ISBN: nnnn-nnnn

L.G.: VI 35-2015

Lan hau Creative Commons da



Aitorpena (by)

Aske zara:

- Lan hau kopianu, banatu eta jendurrean hedatzeko
- Bernahasteko - lana egokitzeko
- lan hau merkataritzara xedeetarako erabiltzeko

Baldintza hauetan:

- Aitortu - Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (baina ez aditzera eman ez haien babesaren duzunik edo haiek obraren erabilera hori babesten dutenik).

Informazio gehiago: <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/legalcode.es>

## DATUEN BABESA: NIRE ESKUBIDEAK

Pertsona guztiek dituzte eskubide hauek, euren datu pertsonalen gainean:

### ATZITZEKO ESKUBIDEA

- Herritarrok eskubidea dugu edozein fitxategi arduraduni DOAN galdetzeko ea gure datu pertsonalik dagoen fitxategian, bai eta datuei buruzko zehaztasunak ere.
- Fitxategi jakin batean **dauden datu jakin batzuei buruz galdetu dezakegu edo gure datu guzti-guztiei buruz.**

### ZUZENTZEKO ESKUBIDEA

- Herritarrok eskubidea dugu DOAN eskatzeko edozein fitxategiren arduraduni **guri buruz dituzten datuak zuzentzeko edo osatzeko**, datuak ez badira zuzenak edo osorik ez badaude.

### EZEREZTEKO ESKUBIDEA

- Herritarrok eskubidea dugu edozein fitxategi arduraduni DOAN eskatzeko **gure datu pertsonalak ezabatzeko**, baldin eta:
  - Desegokiak edo gehiegizkoak badira kontuan hartuta zertarako bildu edo tratatu zituzten.
  - Datuak tratatzeko, hasiera batean eman zen baimena bertan behera utzi nahi bada.

### AURKA EGITEKO ESKUBIDEA

- Herritarrok eskubidea dugu DOAN eskatzeko **gure datu pertsonalak ez tratatzeko** edo tratamendua berehala eten dezaten eskatzeko, baldin eta:
  - Bidezko arrazoi legitimo bat badago, eta legeren batek ez badu galarazten datuen tratamendua etetea.
  - Fitxategiaren helburua publizitate jarduerak eta merkataritza prospekzioak egitea bada.
  - Tratamenduaren helburua ukituaren gaineko erabaki bat hartzea bada eta, erabakia hartzeko, ukituaren datu pertsonalen tratamendu automatizatua baino ez bada hartzen kontuan.

Datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezereztatzeko, eta aurka egiteko (AZETA) eskubideak erabat pertsonalak dira, eta, beraz, **interesdunak berak edo bere ordezkariak** baino ezin ditu baliatu.

Arduradunak gehienez ere **hamar eguneko epean** erantzun beharko dio eskatzaileari, eskubidea jasotzen duenetik

Uste baduzu AZETA eskubideak ez direla behar bezala bete, **BABES** eskaera aurkez dezakezu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan edo dagokion kontrol agintaritzan.



## Non gauden

Tomas Zumarraga Dohatsuaren  
kalea, 71-3 - 01008 Vitoria-Gasteiz

Tel. 945 016 230 - Faxa. 945 016 231

### Posta elektronikoko helbideak

Orokorra:  
[avpd@avpd.es](mailto:avpd@avpd.es)

Euskadiko Datuak Babesteko  
Erregistroa:  
[registro.ficheros@avpd.es](mailto:registro.ficheros@avpd.es)

Eskubideen babesa:  
[tutela.derechos@avpd.es](mailto:tutela.derechos@avpd.es)


Idazkaritza Nagusia:  
[secretaria.general@avpd.es](mailto:secretaria.general@avpd.es)

Web helbidea:  
[www.avpd.es](http://www.avpd.es)



## Nola heldu

- DBEBren egoitza Apaizgaitegi zaharraren mendebaldeko hegalean dago, Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalearen amaieran.
- Eraikin berean daude Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren egoitza, EJIEn zenbait zerbitzura eta IZENPErena (Euskal Administrazioen Egiartzapen Erakundea).
- Gasteizko hegoaldetik sartzeko (Burgostik), Mediterraneoaren hiribidetik hirigunera desbideratzeko bidea hartu behar da.
- Iparaldeko eta ekialdeko sarreretatik (Bilbotik, Donostiatik edo Iruñetik) heltzeko, Euskal Herria bulebarrak hartu behar da, Zabalgana hiribidetik segitu, eta hurrengo bi biribilguneetan ezkerretara biratu ondoren, alboko bidetik, atzerantz eginez, Gasteizko hirigunerantz jo behar da.



# 0. Aukibidea

<b>1.- Testuingurua</b>	<b>6</b>
<b>2.- Fitxa teknikoa</b>	<b>8</b>
2.1. Azterketaren helburuak	9
2.2. Erabilitako metodologia	13
<b>3.- Gizarte diskurtsoa datu babesaren aurrean</b>	<b>15</b>
3.1. Kontzeptua deskodetzea	16
3.2. Herritarren kezka eta ematen dioten garrantzia	27
3.3. Herritarren eskubideak	34
3.4. Datuak erabiltzen dituzten agenteak	40
<b>4.- Gizarte diskurtsoa administrazio gardentasunaren aurrean</b>	<b>45</b>
4.1. Kontzeptua deskodetzea	46
4.2. Administrazio publikoen jarrera gardentasunaren aurrean	50
4.3. Gardentasunaren mugak	55
4.4. Gardentasunaren agertokiaren gaineko balorazioa	58
<b>5.- Datuak Babesteko Euskal Bulegoa</b>	<b>65</b>
5.1. DBEBren gainean dakitena	66
5.2. DBEBren egitekoa administrazio gardentasunaren esparruan	69
<b>6.- Azken oharra</b>	<b>73</b>



# 1. Kapitulu a

## Testuingurua

---



## 1. Testuingurua

**2007an** Datuak Babesteko Euskal Bulegoak eskatu zion Kualitate Lantaldeari **azterketa kualitatibo bat egiteko, jakiteko ea zein zen datu babesari buruzko pertzepzio soziala.**

Azterketatik abiatuta, **hasierako egoera islatzen zuen argazki** moduko bat izan genuen esku artean, ikusteko, batetik, zenbaterainoko garrantzia ematen zion gizarteak datu babesaren kontzeptuari, eta, bestetik, zein ziren herritarren ustez mesfidati egoteko arrazoiak, eragileek (pribatuek nahiz publikoek) dituzten datu pertsonalen kudeaketari dagokionez.

Azterketa hori egin zutenetik **ia 7 urte igaro direnez**, orain **jakin nahi dugu ea zein izan den harrezkeroztik datu babesaren gaineko gizarte diskurtsoaren bilakaera**, aldaketa garrantzitsuenak zehazteko, eta ikusteko nola ari diren baldintzatzen Internet eta sare sozialak pribatutasunarekin eta datu babesarekin lotutako edozein gauza.


**Bide batez**, ikertu dugu ea **herritarrek zer jarrera duten administrazio gardentasunari dagokionez eta horrek pribatutasunean eta datu babesean dituen ondorioak**. Kontuan izan behar dugu Eusko Jaurlaritzak **Euskal Administrazio Publikoari buruzko Legea** egiten ari dela une honetan, eta legearen aurreproiektuaren IV. Titulua administrazio publikoa eta gardentasunari buruzkoa dela.

Beraz, honako azterlan honen asmoa da **aztertzea datu babesari buruzko gizarte diskurtsoaren bilakaera, eta horrek argitzea zein den herritarren jarrera administrazio gardentasunaren eta horrek pribatutasunean dituen ondorioen aurrean.**

# 2. Kapituluua

## Fitxa teknikoa

---



2.1. Azterketaren helburuak


2.2. Erabilitako metodologia

## 2.1. Azterketaren helburuak

Ikerketa honen xede nagusiak honako **bi alderdi garrantzitsuak izan dira:**

### 1. Datu babesaren inguruko gizarte diskurtsoaren bilakaera.

- **Datu babesaren kontzeptuaren gizarte deskodetzea.**
  - Zenbaterainoko begirunea diote datu babesaren eta pribatutasunaren kontzeptuari herritarrek?
  - Ze garrantzi aitortzen diete? zergatik?
  - Zein egoera jakinetan azaleratzen da datu babesaren inguruko kezka? zein egoeratan agertzen da konfiantza?
  - Zenbat dakite herritarrek esparru honetan dituzten eskubideei buruz? zer da dakitena zehatz-mehatz eta zer ez?
- **Datu pertsonalak nola deskodetzen diren gizartearen ikuspuntutik**
  - Nola sailkatzen dituzte herritarrek datuak, hainbeste izanda?
  - Zein garrantzi aitortzen diote bakoitzari?



## 2.1. Azterketaren helburuak

- Datu pertsonalak erabiltzen dituzten **eragileei buruzko mapa**.
  - Zein dira datuak erabili ohi dituzten eragile garrantzitsuenak?
  - Herritarrek nola baloratzen dute eragileek datu babesari dioten begirunea?
  - Herritarrek zein babes neurri hartzen dituzte zehatz-mehatz?
- **Internet eta sare sozialak**, datu pertsonalak elkartrukatzeko kanal berria.
  - Zein datu mota bidaltzen dira sarearen bidez?
  - Zenbateraino hartzen da kontuan pribatutasuna, sarean ibiltzeko?
  - Zein arrisku antzematen dira pribatutasunari dagokionez?
  - Zein babes neurri hartzen dira zehatz-mehatz?


## 2.1. Azterketaren helburuak

### 2. Gizarte diskurtsoa administrazio gardentasunaren eta datu babesaren arteko aurkakotasunaren gainean.

- **Administrazio publikoak eta gardentasuna.**
  - Zenbaterainoko gardentasuna antzematen da administrazio publikoetan? zergatik?
  - Zein jarrera antzematen zaio administrazioari?
  - Desberdintasunak daude administrazio mota bat ala beste izan?
  - Zein egoeratan (adibideak) antzematen da gardentasuna?
  - Zein egoeratan (adibideak) ez da antzematen gardentasuna?
- **Gardentasunaren mugak.**
  - Non egon behar dute administrazio publikoen gardentasunaren mugak?
  - Zein informaziok egon behar du babestuta? zergatik?
  - Nolako eragina dute datuak babesteko eskubideak eta pribatutasunak administrazio publikoen gardentasunean?
  - Zeri ematen zaio garrantzi handiagoa, gardentasunari (informaziorako eskubidea) ala datu babesari (pribatutasunerako eskubidea)? zergatik?

## 2.1. Azterketaren helburuak

- Herritarren jarrera gardentasunak dituen agertokiaren aurrean (\*).



(\*). Aztertu diren agertokiak DBEBrekin adostu dira alde aurretik, landa-lana egin baino lehen.

- Zer irizten diote **DBEB** izateari gardentasunaren eta pribatutasunaren arteko gatazkak ebazten dituen organoa.
  - Zein eginkizun ditu DBEBk?
  - Zenbateraino jotzen dute organo egokitzat gardentasunaren eta pribatutasunaren arteko gatazkak ebazteko, auzitegiara jo beharrik gabe?

## 2.2. Metodologia

Segidan azalduko dugu zein **metodologia** erabili dugun aurreikusitako helburuok gauzatu ahal izateko.


**Metodologia kuantitatiboa erabili dugu, eztabaida taldeak edo focus group delakoak erabilita.**

**Teknika diskurtsibo honek balio du era askotako gaien gainean herritarren diskurtsoaren elementu funtsezkoenak eta garrantzitsuenak jasotzeko, sakon aztertuta herritarren jarreran eragina duten arazoak eta argudioak.**

Zehazki, **7 eztabaida talde osatu ditugu**, ondoko aldagaien arabera antolatuta. 2007ko azterketan erabilitako parametro bereberkin egin dira:

-**Lurraldetasuna:** Lurralde historiko guztietan egin dira taldeak, EAEn dauden sentsibilitate guztiak jaso ahal izateko.

-**Adina:** Adina ere kontuan izan dugu taldeak antolatzeko, helduen eta gazteen diskurtsoak hobeto bereizteko.



## 2.2. Metodologia

Aldez aurretik finkatutako irizpideak kontuan hartuta, eztabaida taldeak honela antolatu ditugu:

	Bilbao	Donostia	Gasteiz
18-30 urte bitarteko pertsonak	ET 1		ET 1
31-45 urte bitarteko pertsonak	ET 1	ET 1	ET 1
46-65 urte bitarteko pertsonak	ET 1	ET 1	

Talde guztiak mistoak dira sexuari dagokionez (% 50 gizonezkoak eta % 50 emakumezkoak).





# 3. Kapitulu

## Gizarte diskurtsoa datu babesaren aurrean

---



- 3.1. Kontzeptua deskodetzea
- 3.2. Herritarren kezka eta ematen dioten garrantzia
- 3.3. Herritarren eskubideak
- 3.4. Datuak erabiltzen dituzten agenteak

## 3.1. KONTZEPTUA DESKODETZEA



- 3.1.1 Kontzeptua deskodetzea
- 3.1.2 Datu babesaren egoera
- 3.1.3 On line mundua eta off line mundua  
aurrez aurre

## 3.1. Kontzeptua deskodetzea

### 3.1.1 KONTZEPTUA DESKODETZE

#### KONTZEPTU GENERIKOA: DATUEN BABESA ETA PRIBATUTASUNA

▪ Pribatutasunaren eta datu babesaren gaineko kontzeptua planteatzen denean, antzematen da herritarrek diskurtso **desegituratu** samarra dutela. Honelako elementuekin lotzen dute:



▪ Beraz, ikus daiteke herritarrek azaleratzen dituztela **privatutasunarekin lotutako esparru eta sentsazio asko**, itxura batean bata besterekin zer ikusirik ez dutenak eta oso modu sakabanatuan adieraziak. Denen artean, baina, **Internetekin eta on line edo lineako esparruarekin** zer ikusia dutenak dira nagusi.

## 3.1. Kontzeptua deskodetzea

### 3.1.1 KONTZEPTUA DESKODETZE

▪ Agerian geratu da kontzeptu **dimentsioaniztuna dela**, herritarren aburuz eguneroko bizitzako alderdi askorekin lotuta dagoena:

*"Sare sozialak eta argazkiak Interneten" 10-30 Bilbao*

*"Unibertsitateko notak: NANarekin eta izen-abizenekin jartzen dituzte" 18-30 Bilbao*

*"Posta elektronikora heltzen diren spamak" 31-45 Bilbao*

*"Ez diezaiotela inori eman nire datu pertsonalik" 31-45 Donostia*  
*"Aztarna digitala eta cookieak, badakite zer gustatzen zaigun eta zein orrialdetan sartu garen" 46-65 Donostia*

*"Etxera deitzen digute mugikorreko tarifak eskaintzeko edo nik dakit zertarako, non lortu dute nire zenbakia?" 31-45 Vitoria-Gasteiz*

*"Norberaren informazio pertsonalena ez kaleratzea, norbere intimitatea da" 18-30 Bilbao*

*"NANA, bankuko kontuak, izena eta abizenak, helbide elektronikoa, telefono zenbakia, osasuna, soldata, ideologia, zaletasunak, aurrekari penalak, notak, etxeko helbidea ..." 18-30 Vitoria-Gasteiz*

▪ Gainera, **herritarrek** kategoria bi **bereizten dituzte datu babesaren esparruan**, datuen izaerarekin zer ikusi zuzena ez dutenak, baina bai **datuak lagatzeko arrazoiekin**.

#### EMAN BEHAR DITUZUN DATUAK...

- ✓ Telefono konpainia
- ✓ Elektrizitate konpainia
- ✓ Gas konpainia
- ✓ Administrazio publikoak...

#### EMAN NAHI DITUZUN DATUAK...

- ✓ Fidelizazio txartelak
- ✓ Harpidetzak
- ... informazio buletinetan
- ✓ Erabiltzailearen alta
- ... web orrietan
- ✓ Sare sozialak...

## 3.1. Kontzeptua deskodetzea

### 3.1.1 KONTZEPTUA DESKODETZEIA

- Baina, beste ezer baino gehiago, datu babesa **ESKUBIDEA** dela diote. Orokorrean datu babesa eta pribatutasuna **norbere informazio pertsonalena kanpoan ez agertzeko eta babestuta eduki ahal izateko ESKUBIDE**tzat jotzen dute.



*"Babestu behar dena norbere intimitatea da" 18-30 Vitoria-Gasteiz*

*"Ohorerako eta pribatutasunerako eskubidea" 18-30*

*"Norberari buruzko datuak inork ez argitaratzeko eskubidea" 46-65 Donostia*

- Deigarria da datu babesa eta pribatutasuna deskodetzeari buruzko atal honetan garrantzi handia hartzen duela herritarren diskurtsoan **Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak**, kontsultatutako pertsona gehienek ezagutzen dutelako, eta funtsezkoa dela adierazi dute.

*"Horretarako zegoen Datuak babesteko Legea, halako gauzak zaintzeko; baina, ez dakit zerbaiterako balio duen" 31-45 Donostia*

*"DBLO da, datuak babesten dituen" 31-45 Vitoria-Gasteiz*



Herritarrek antzematen dute egunerokotasunean harreman handia dutela datu babesarekin, baina hain esparru asko ditu bizitzak, zaila dela herritarrentzat datu babesaren inguruko diskurtso egituratua eratzea.

## 3.1. Kontzeptua deskodetzea

### 3.1.2 DATU BABESAREN EGOERA

▪ **Datu babesaren eta pribatutasunaren egoerari buruzko** hausnarketa egiten dutenean, ikusten duguna da herritarrek **bi sentrazio dituztela eta kontraesanean daudela:**

▪ Batetik, **datu babesa definitzean**, herritarren **abiapuntua dira BABES FALTAREN SENTSAZIOA, etsipena eta merkatuaren abusua**, haien datuekin egiten den erabilerari dagokionez. Alde horretatik, **babesik gabe daudela uste dute, eta ez dutela kontrolatzen zer gertatzen den datu horiekin.**


*"Ezin duzu ezer egin, mundu guztiak ditu norbere datuak, onartu egin beharra dago" 46-65 Donostia*

*"Kontsumitzaileok ez gara sekula hain babesgabe egon" 46-65 Bilbao*

▪ Eta bestetik, herritarrek onartzen dute **nolabaiteko AXOLAGABETASUNEZ jokatzen dutela datuak argitaratzen dituztenean**, oso ondo pentsatu gabe, eta etorkizuneko ondorioetan erreparatu gabe.

*"Datuak Interneten jarri eta berehala Googlerenak dira, eta pentsatu ere ez dugu egiten" 46-65 Donostia*

*"Ez dugu ikusten ze ondorio izan ditzakeen norbere intimitatea denen aurrean ikusgai jartzeak" 18-30 Bilbao*



## 3.1. Kontzeptua deskodetzea

### 3.1.2 DATU BABESAREN EGOERA

Horiez gain, herritarrek datu babesari buruzko **beste ideia kontrajarri batzuk** ere utzi dituzte agerian, esate baterako honakoak:

- Herritarrek diotenez, **bizi garen gizarteak behartu egiten gaitu datuak lagatzera nahi eta nahi ez, BIZITZA SOZIAL NORMALIZATUA** egin nahi badugu.

*"Datu babesa mundutik aldentzea da, norberak egin behar du aukera"* 31-45  
Bilbao

*"Hor egoteagatik ordaindu behar duzun prezioa da"* 31-45 Bilbao

- Eta bestetik, datu babesa eraginkorra denean, herritarrek diote eraginkortasuna **TRABA** bihurtzen dela izapideak eta gestioak egiteko orduan.

*"Trabak horiek askotan bizitza zailagoa egiten digute eta ez dute hainbeste babesten gure intimitatea"* 18-30 Bilbao

*"Dena zailago bihurtzen du, obsesio eta paranoia puntu batera heldu gara"* 18-30 Vitoria-Gasteiz

**"Datu babesa eta herritarrek, elkarrekin ezin eta elkar gabe ere ez"**



Herritarrek datu babesari buruzko **sentsazio kontrajarriak** utzi dituzte agerian. Batez ere, uste dute babesgabezia sentsazioa eta axolagabetasuna biak dabiltzala elkarrekin, askotan datuak eman beharrean sentitzen dutelako euren burua, eta beste hainbatetan "nahitaez" eman behar izaten dituztelako, normaltasunez bizitzeko, trabarik gabe.



## 3.1. Kontzeptua deskodetzea

### 3.1.3 ON LINE MUNDUA ETA OFF LINE MUNDUA AURREZ AURRE

Datu babesa ez dute berdin-berdin ikusten **bertatik bertarako munduaz ari direnean eta Interneteko munduaz ari direnean. Desberdintasun handiak daude.**

▪Aurrez aurre egiten diren harremanetan herritarrek **uste dute seguru daudela datu pertsonalen tratamenduari eta babesari dagokienez, iruditzen zaielako pribatutasuna bermatzen duten jardunbideak** bizitzako arlo guztietara **hedatu direla**: lan esparrua, osasun esparrua, hezkuntza, haurtzaroan eta abar.

"Paperean sinatzen den orok du datu babesari buruzko klausula bat" 18-30 Bilbao

"Nik Irungo ikastetxe batean lan egiten dut eta gurasoei baimena eskatu behar izan diegu umeei argazkiak ateratzeko" 31-45 Donostia

"Orain norberak edo inork norbere notak ikusi nahi izanez gero, jadanik ez datoz izen-abizenekin, eta inork ezin ditu jakin" 18-30 Vitoria-Gasteiz

▪Hala ere, *on line* edo lineako munduaz ari direnean, datu babesak **traba** handiak ditu. **INTERNET arautu gabeko esparrutzat jotzen da. On line** edo lineako mundua **"datuen merkatu nagusia dela"** uste dute.

#### Ordaina eskatzen duten zerbitzuak

Interneten **edukiak eskuratu nahi izanez gero**, datu pertsonalak laga behar dira lehendabizi. Datuak **borondatez** lagatzen dira hainbat eskaintza edo eduki eskuratu ahal izateko, baina sarritan **jakin gabe datu lagatzeak zein ondorio izan ditzakeen.**



"Garrantzitsuagoa da 100 euroko zapatilak 50 eurotan erostea, datuak eman behar ditudala pentsatzea baino" 18-30 Bilbao

"Zuk haien eskaintza nahi duzu, haiek zure datuak" 31-45 Vitoria-Gasteiz

"Interneten zer edo zer erosi nahi baduzu, datuak eman behar dituzu" 18-30 Vitoria-Gasteiz

"Askotan ez zara konturatzen zertan ari zaren" 46-65 Bilbao

## 3.1. Kontzeptua deskodetzea

### 3.1.3 ON LINE MUNDUA ETA OFF LINE MUNDUA AURREZ AURRE

#### Extimitatea sare sozialetan

Sare sozialek datu babesa urratzen dute.

Azken finean, **sare sozialen asmoa da partekatzea eta publiko egitea** hasiera batean hain kontu handiz babestuta zeuden **datu pertsonalak**. Sare sozialak **datu pertsonalak babestearekin kontrajarrita** ikusten dira, **INTIMITATEA**ren etsai gisa.

*"Besteok arduratzen gara ikasleen irudia babesten Interneten eta hara non gurasoek Facebooken jartzen dute" 31-45 Donostia-San Sebastian*

#### Mugarik gabeko zabalkundea

Iruditzen zaie sarean dabiltzan datuak **erabat kontroletik kanpo** dabiltzala, bai borondatez lagatakoak bai besteak, zelan argitaratu diren ere oso ondo ez dakigunak. Herritarrek **ez dakite zein den haien datuen zabalkundearen helmena**.

*"Mugikorrerako aplikazio bat jaisten dugun bakoitzean, gure datu guztiak lagatzen ditugu, eta hori ez dugu kontuan hartzen; baina mugikorren eta Interneten kontuak ihes egiten digu. Denak balio du" 31-45 Bilbao*

*"Cookieak toki guztietan daude, guri buruzko dena dakite, eta kontsumitzaileen profilak egiten dituzte. Bidaia bat bilatzen duzu, eta gero bi aste ari dira eskaintzak bidaltzen. Ikusi duzun guztia erregistratzen dute eta gero iragarkiekin gogaitu" 18-30 Bilbao*

*"Facebooken argazkiak ipintzen ditugunean, jabetza galtzen dugu eta Facebookenak dira aurrerantzean" 31-45 Vitoria-Gasteiz*



## 3.1. Kontzeptua deskodetzea

### 3.1.3 ON LINE MUNDUA ETA OFF LINE MUNDUA AURREZ AURRE

Pertsona gutxik hartzen dituzte kontuan arriskuak eta segurtasun neurriak (fidagarritasun gutxiko orrietan ez erregistratzea, Interneten erosketarik ez egitea, sare sozialetatik hanka egitea ...); eta, ondorioz, **jende gehiena gero konturatzen da zer nolako ondorioak dakartzan Interneten ipinitakoak eta bere garaian arinkeriaz jokatu izanak.**



**Datu pertsonalen babesa eta pribatutasuna ondo zainduta daudela dirudi aurrez aurreko harremanetan. Baina, Interneten eta lineako munduan estutasunean jartzen dituzte pribatutasunaren printzipio guztiak, herritarrek uste dutenez.**

### 3.1. Kontzeptua deskodetzea

#### Adinaren arabera...

On line esparruan, adinaren araberako desberdintasunak ikusten dira pertsonen artean:

▪ **Gazteenek** hobeto **ezagutzen dituzte** sareko **arriskuak**, eta **onartu egiten dituzte**. Hortik eratorritako EXTIMITATEA onartzen dute. Ematen du **merezi duela Interneten intimitatea galtzea**, bestelako **onura batzuk ematen dituelako**.

*"Halaxe da, barruan egon nahi baduzu, onartu egin behar duzu" 18-30 Vitoria-Gasteiz*

▪ **Helduagoak** direnen ikuspegia bestelakoa da. Horiek uste dute **"gazteen axolagabetasuna"** adinaren ezaugarri bat dela, eta horregatik ez dituztela ikusten intimitatea denen bistan jartzeagatik etor daitezkeen ondorioak.

*"Nik uste dut gazteak ez direla jabetzen Facebooken edozer ipintzeak ekar ditzakeen ondorioez" 46-65 Donostia*

*"Adinak zer ikusi handia du. Nik uste dut jende helduak hobeto zaintzen duela intimitatea" 31-45 Vitoria-Gasteiz*

### 3.1. Kontzeptua deskodetzea

#### Diskurtsoaren bilakaera 2007-2014

- Nabaritu da herritarren diskurtsoan **hasi egin dela nabarmen** datu babesari buruzko ezagutza.
- **Datu babesaren kontzeptua ezaguna da** taldeetan parte hatu duten pertsona gehientzat, eta, beraz, badakite zertaz ari diren, aurreko urteekin alderatuz gero.
- **Datuen segurtasunaz arduratu beharra** aurreko urteetan baino nabarmenago agertzen da.
- Datu babesaren inguruko egungo **diskurtsoa oso lotuta dago Interneti eta sarean** dabiltzan datu pertsonalen inguruan herritarrek sentitzen duten babes gabezia sentsazioari.



## 3.2. HERRITARREN KEZKA ETA EMATEN DIOTEN GARRANTZIA



## 3.2. Herritarren kezka eta ematen dioten garrantzia

### DATU PERTSONALEN BABESAK KEZKA ERAGITEN DU?

▪ Esan daiteke datu babesaren eta pribatutasunaren inguruan ikusten den **kezka EZKUTUKOA** dela.

▪ Herritarrek badakite zein diren datuak ikusgai jartzearen ondorioak; baina, ez dirudi kontu handiz dabiltzanik datuak babesten; eta **arriskuak bigarren mailakoak** direla uste dute.

*"Obsesio eta paranoia puntu batera heldu gara. Ez da ezer gertatzen norbere datu guztiak dituztelako" 18-30 Bilbao*

*"Geure datuak eman behar baditugu % 30eko deskontua egiteko, bada, eman eta kitto" 46-65 Bilbao*

*"Inork ez du nire argazkirik behar, ez naiz Jennifer López" 18-30 Vitoria-Gasteiz*

▪ **Garrantzitsua** dela diote, baina **informazioaren gizartearen berezko arriskutzat hartzen da**, eta **konfiantza tazitua** dute benetan datu garrantzitsuak dituztenekiko: **bankuko datuak eta osasun datuak**.

*"Bizitza pribatuarekin malguago jokutzen dugu, baina diru kontuak eta osasun kontuak ezin dira ukitu. 31-45 Vitoria-Gasteiz*

*"Osasun datuek ez naute hainbeste kezkatzen, ematen duelako ez dituztela ukitzen" 31-45 Bilbao*



## 3.2. Herritarren kezka eta ematen dioten garrantzia

▪Gainera, herritarrek aitzakiak behar dituzte euren buruak zuritzeko eta eguneroko bizitza errazagoa izateko.

➤Onurak eta kalteak aukeratu behar izanez gero, **datuak lagata eta ikusgai jarrita gauza gehiago lortzen dela baloratzen dute, eta ez die hainbeste axola balizko erabilera okerrak.**

*"Teknologia berriek bizitza errazten digute, baina trukean gure datuak eman behar ditugu. Datuak ordainetan" 18-30 Vitoria-Gasteiz*

•**Uste dute ezin dutela ezer egin**, eta, ondorioz, herritarrek ez dira gehiegi arduratzen arriskuez.

*"Gauza batzuk ez daude nire esku, eta ezin dut ezer egin" 31-45 Donostia*

*"Niri bost datu babesak, berdin dit. Ez dago nire esku" 46-65 Bilbao*



Azken finean, zabaldua dagoen kontu bat da pertsona arrunten datuak ez direla interesgarriak datuak "asmo txarrekin" erabil ditzaketen horientzat. Imaginario kolektiboan gailentzen den ustea da: "niri ez zait ezer gertatuko"

## 3.2. Herritarren kezka eta ematen dioten garrantzia

### NOIZ HASTEN GARA ARDURATZEN?

- **Beldurra eta kezka** batez ere **on line munduarekin** zer ikusia duten egoeretan **pizten dira**:
  - Zabaltzen denean **hackerren batek** enpresa handiren baten datu basean sartzea lortu duela.  
*"Inoiz entzun dugu enpresa garrantzitsuen datu baseetan lapurretan egin dutela"* 18-30 Bilbao
  - **Kontu korrontean kargu bat** jasotzen dugunean, eta ez dugunean gogoratzen erosketa hori egin dugunik.  
*"Nik erosketa bat egin nuen Amazonen, eta kargu bat egin zidaten baimenik gabe!"* 18-30 Bilbao
  - Berrietan esaten dutenean **pertsonaia ospetsuei argazkiak ostu** dizkietela.  
*"Oraintsu pertsona ospetsu batzuei argazkiak lapurtu dizkiete mugikorretik"* 31-45 Donostia
  - **Norberari buruzko bilaketak egiten ditugunean Interneten**, eta argi ikusten dugunean zein presentzia dugun linean.  
*"Nik ez dut inoiz bilatu neure izena Interneten, baina hona etorri aurretik begiratu dut eta zur eta lur geratu naiz: dena agertzen da!"* 46-65 Bilbao  
*"Googlen dena dago. Orri batean erregistratuta bazaude, iruzkinen bat egin baduzu..."* 46-65 Bilbao
  - Duela gutxi Interneten egindako bilaketekin zer ikusia duten **mezu elektronikoak** heltzen zaizkizunean.  
*"Interneteko cookieek ikusten duzun guztia erregistratzen dute, eta gero iragarkiekin itotzen gaituzte"* 18-30 Vitoria-Gasteiz
- **Telefono konpainien deiak** jasotzen ditugunean, bezeroak izan gabe, eta gure datuek nondik atera ote dituzten pentsatzen hasten garenean.  
*"Gaueko orduetan telefono konpainiak deika hasten direnean, baina nork eman die nire zenbakia?"* 46-65 Donostia

## 3.2. Herritarren kezka eta ematen dioten garrantzia

### ZER KEZKATZEN DITUEN HARRITARRAK, LEHENTASUNAREN ARABERA:

- Lehen ere esan dugunaren arabera, herritarren kezka ezkutukoa den arren, badira hainbat elementu kezkatzeko modukotzat jotzen dituztenak, eta, beraz, **horiek babestea eta defendatzea garrantzitsutzat jotzen dute:**



- **Bankuko datuak.**
  - **Osasuna eta osasun historiala.**
  - **Irudlak eta norbere ospea.**
  - **Identifikazio datuak (izen-abizenak, helbidea eta telefonoa)**
- Beraz, herritarrek uste dute zenbait datu beste batzuk baino garrantzitsuagoak direla, pertsonen bizitzako esparru pribatuan eragin zuzena dutelako erarik intimoenean, **datu horiek argitaratu eta erabiliz gero, igartzeko moduko kalte pertsonalak egin daitezkeelako.**

*“Osasuna eta dirua sakratuak dira, ezin dira ukitu, eta suposatzen dut ondo babestuta daudela” 46-65 Bilbao*

*“Elkarrizketa batera joan eta burutik pasatzen zaizu ...Googlen ibiliko ziren nire bila? Nolakoa naizela pentsatuko ote dute? 31-45 Bilbao*

## 3.2. Herritarren kezka eta ematen dioten garrantzia

### NOLA EMAN ERANTZUN EGOKIA

- Norbere datu pertsonalak bistan ez egoteko eta **babesteko estrategiak egon badaude**, baina oso pertsona gutxik erabiltzen dituzte, eta erabiltzen dituztenek ere, **momentuan duten kezkaren araberako neurriak hartzen dituzte**.
- Hona zenbait neurri:
  - **Posta elektronikoko bat izatea lineako erosketetarako**, eta harpidetza egiteko edo datu pertsonala emateko eskatzen duten web orrietarako.
  - **Sare sozialetako segurtasun erlaintzak erabiltzea**, eduki pertsonaletarako sarbidea mugatzeko.
  - **Birusen aurkako lizentzia on bat izatea**.
  - **Lineako erosketak leku ezagunetan egitea** eta konfiantzazkoetan.
  - **Merkataritza zenbakiak identifikatzea**.

*"Nik neuk orri ezagunetan baino ez dut erosten" 18-30 Vitoria-Gasteiz*

*"Nik ez daukat Facebook, ez dut ulertzen norberak argazki bat jartzea eta Filipinetan dagoen baten bat hori ikusten egotea. Ez zaio ezertarako interesatzen" 46-65 Donostia*

*"Nik badakit zein diren mugikorrak, eta spam1. spam2 ..., horrela markatuta dauzkat eta ez ditut hartzen, blokeatu egiten ditut zuzenean. 46-65 Donostia*

*"Pay pal seguruagoa da" 18-30 Bilbao*

*"Nire amak Facebook dauka, eta argazkiak igotzen ditu geuk ikusteko; baina, profil publikoa du, eta edonork ikus dezake" 18-30 Bilbao*

**KEZKA EZKUTUA, ERANTZUN MOTZA**



### 3.3. Herritarren eskubideak



**3.3.1 AZETA eskubideak** (Datuak Atzitzeko, Zuzentzeko, Ezerezteko eta Aurka egiteko eskubideak)

**3.3.2. Bereziki babestutako datuak**

### 3.3. Herritarren eskubideak

#### ZUZENBIDEA ETA INDARREAN DAGOEN LEGEDIA

▪ Datu pertsonalen babesarekin zer ikusia duten **eskubideak** aipatzen direnean, herritarrek honako **kontzeptu hau beste ezer baino gehiago aipatzen dute:**

#### DATUAK BABESTEKO LEGEA.

▪ Herritarrek Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legearen gaineko **ezagutza zabala** dute. Hala ere, **legeak zuzenean ukitzen duen lan jardueraren bat burutzen dutenek bakarrik identifikatzen dituzte ondo legean jasotako elementu zehatzak.**

*"Ez duzu legea ezagutzen, Zuzenbidea ez baduzu ikasi behintzat" 18-30 Bilbao*

*"Enpresek zenbait jarraibide bete behar dituzte, datuak babesteko legea betetzeko" 18-30 Bilbao*

*"DBLOk datuak babesteko zenbait modu ditu: ez dira gauza bera inkesta bateko datuak edo osasun datuak" 31-45 Vitoria-Gasteiz*



## 3.3. Herritarren eskubideak

### 3.3.1 AZETA ESKUBIDEAK

#### AZETA ESKUBIDEEN GAINEKO EZAGUTZA ETA BALORAZIOA

- Orokorrean esan daiteke herritarrek **oso ezagutza eskasa** dutela datu babesaren esparruan (AZETA eskubideak) dituzten eskubideei buruz eta horien garrantziari buruz.
- Herritarrek sumatzen dute egon badaudela pribatutasuna berariaz zaintzen dituzten eskubideak. Baina **ez dira gai esateko zein eskubide diren**.

*"Beharbada baditugu eskubideak, baina ez dakit betetzen diren" 18-30 Bilbao*

*"Zerbait sinatzen duzunean, beheko aldean agertzen den letra txikia, web orrietan ere agertzen da aurrera segitu nahi baduzu" 31-45 Vitoria-Gasteiz*

*"Ez dituzu ezagutzen, Zuzenbidea ez baduzu ikasi behintzat" 31-45 Bilbao*

- Eskubideak ezagutzen dituztela dioten pertsona apurren ustez, «**betetzen oso zailak dira**». Sumatzen dute eskubide horiek errespetatzea nahi badute, **herritarrek eskatu behar dutela eskubideak betearazteko**, eta hori egitea **zaila eta konplexua da, eta ez dago denen eskura**. Gainera, herritarrek **ez dute garbi nora edo zein erakundetara jo behar duten**, euren eskubideak baliatu ahal izateko.

*"Geure eskubideak defendatzeko, denbora eta dirua behar dugu; bestela, alferrik da" 46-65 Bilbao*

*"Badakit datuak ezerezteko eskubidea dagoela, baina traba asko jartzen dizkizute, eta, azkenean, hori onartzeko prest ez gaudenez, paso egiten dugu" 18-30 Vitoria-Gasteiz*

*"Gauzak erraztu egin beharko lituzkete. Leku batzuetan dirua ordaindu behar da norbere datuak ezabatzeko" 18-30 Vitoria-Gasteiz*

*"Nora joan? OCURA? Baina ez du indarrik" 30-45 Bilbao*

*"Praktikan ez dago eskubiderik" 46-65 Donostia*

Datuak **A**tzitzeko, **Z**uzentzeko, **E**zerezteko e **T**a **A**urka egiteko **eskubideak**

## 3.3. Herritarren eskubideak

### 3.3. 1. AZETA ESKUBIDEAK

#### AZETA ESKUBIDEEN GAINEKO EZAGUTZA ETA BALORAZIOA

##### ESKUBIDEAK WEB-EAN

- Herritarren ustez, **AZETA** eskubideak bertatik bertara eta modu erabilgarrian baliatzea zaila bada, zailtasuna biderkatu egiten da Interneten.

*"Web orrietako beheko aldean agertzen den letra txikia ez da ia ikusten" 31-45 Donostia*

*"Interneten dena publikoa da era batean ala bestean" 46-65 Bilbao*

- Herritarren ikuspuntutik, **sarean ez dagoenez muga geografikorik edo administratiborik**, legediak aplikatzea zailagoa da eta zenbaitetan legeak kontrajarriak dira. Onartzen dute web orriaren egoitza legerik gabeko edo beste era bateko legea dagoen herrialde batean badago, ezinezkoa dela norbere estatuaren lurraldean indarrean dauden eskubideak baliatzea. Alde horretatik, eskatzen dute **lege global bat egiteko, herritarrek babesteko**.

#### Diskurtsoaren bilakaera 2007-2014

- **Datuak babesteko legearen gaineko ezagutza** nabarmen handitu da, nahiz eta apenas ezagutzen duten legearen eduki zehatza.
- **AZETA** eskubideak gero eta gehiago agertzen ari dira herritarren diskurtsoan, nahiz eta gehiengoak ez dituen ezagutzen, eta uste du oso **"zaila dela horiek baliatzea"**.



## 3.3. Herritarren eskubideak

### 3.3.1 AZETA ESKUBIDEAK

AZETA eskubideei lotuta, beste honako 2 elementurekin zer ikusia duen diskurtsoa ere azaleratu da: **Ahazteko eskubidea eta Robinson Zerrenda.**

#### AHAZTEKO ESKUBIDEA

"Sarean ahazteko eskubidea" delakoari buruzko ezagutza handia dela sumatzen da. Europar Batasunak **Googleren** aurka onartutako epaiek ikusmin handia sortu dute herritarrengan.

*"Gizon batek epaitegira jo zuen Googlen agertzen zelako berari buruzko aspaldiko informazioa, jadanik konponduta zeukana, eta kalte egiten ziona" 18-30 Vitoria-Gasteiz*

*"Europako epai batek Google behartu du norberari buruzko aipamenak ezabatzeraz, eskatuz gero. Duela 30 urte kartzelan egondako jendeak ezin da betiko markatuta geratu" 31-45 Bilbao*

#### ROBINSON ZERRENDA

**Herritar gutxi batzuk baino ezagutzen ez duten zerrenda bat da.** Baina, aipatzen dugunean, **interes handia pizten du** gainontzeko herritarrengan.

Jende askorentzat erakargarria da sustapenekin eta eskaintzekin itotzen ez duten jende talde batean sartzea.

"Robinson zerrendan sar zaitezke eta ez dizute publizitaterik bidaltzen. Ez nuen Telefonikara deitu, eta ez nien eskatu nire telefono zenbakia pribatua izateko, baina ez naute gehiago gogaitu"

*46-65 Donostia*

### 3.3. Herritarren eskubideak

#### 3.3.2 BEREZIKI BABESTUTAKO DATUAK

- Taldeetan parte hartu zutenei azaldu genien **badirela bereziki babestutako datu batzuk:**

erlijioa, arraza edo etnia, iritzi politikoak, bizitza sexuala, ustezko delituak, delituengatik ezarritako kondenak eta osasun fisikoa eta buruko osasuna.

- Herritarrek, hasiera batean, **ez diete garrantzi handiegirik ematen**. Hala ere, **diskurtsoa aldatu egiten dute** gaia sakonagoa aztertzen denean, ikusten hasten direlako **halako datu sentsibleak argitaratuz gero, nolako arriskuak etor daitezkeen, batez ere:**

- **Norberak ez dituenean argitaratzen.**

*"Beharbada Gipuzkoako PPko batek ez du nahi bere identitate politikoa jakitea bere herrian" 18-30 Bilbao*

*"Kontu hauek bakoitzak ematen dion garrantziaren arabekoak dira. Norberak esan nahi baditu, ondo; baina, inork esatea..." 31-45 Donostia*

- Mota horretako datuak **argitaratzeagatik, pertsona bat diskriminatu dezaketenean.**

*"Pertsonak aldatuz doaz bizitzan zehar. Hori eginda, bizitza osorako kondenatzen duzu" 18-30 Vitoria-Gasteiz*

- Batzuek uste dute **komenigarria izan daitekeela** interes orokorrekoak izan daitezkeen **zenbait datu argitaratzea** (batez ere, osasunari eta kondenei buruzkoak): **"Guztion onerako bada"**

*"Kondenak Estatu Batuetan bezalakoak izan beharko ziren, argazkiak ipinita tetabrik ontzietan, denek ikus ditzaten" 46-65 Bilbao*

*"Agian nik jakin egin nahi dut irakasle bat gaizki dagoela eta umeentzat arriskutsua dela" 46-65 Donostia*

- Azkenik, azpimarratu behar dugu **eskubide horien artean faltan botatzen direla "garrantzitsuenen" artean aipatutako datu batzuk: bankuko datuak.**



## 3.4. Datuak erabiltzen dituzten agenteak



*3.4.1 Enpresa pribatua eta datu babesa*

*3.4.2 Administrazio publikoa eta datu babesa*

### 3.4. Agenteak

- Herritarren datu pertsonalak dituzten agenteen gaineko diskurtsoa **konfiantza - mesfidantza** planoan dago.
- Hortik ateratzen da agenteei buruzko honako mapa:

Enpresa pribatuak



Administrazio publikoa



**+Mesfidantza**

**+Konfiantza**

- Lehendabizi agente biak proposatu genizkien herritarrei, eta segidan azaldu genien nola erabiltzen dituen bakoitzak datuak.

## 3.4. Datuak erabiltzen dituzten agenteak



### 3.4.1 ENPRESA PRIBATUA ETA DATU BABESA

▪ Herritarrei enpresekiko **mesfidantza handia** antzematen zaie, **datu pertsonalak zaintzea eta erabiltzeari dagokionez.**

▪ Mesfidantzak, batez ere, arrazoi hauek ditu oinarrian:

- **EZJAKINTASUNA ETA BEHARRA:** iruditzen zaie askotan enpresa pribatuetan datu pertsonalak tratatzen dituzten langileek **ez dutela datuak behar bezala tratatzeko adinako prestakuntzarik, edo jardunbide desegokiak erabili beharrean egoten direla lan egiteko.**

*"Ezjakintasunagatik askotan okerreko gauzak egiten ditugu" 31-45 Vitoria-Gasteiz*

*"Askotan ezjakintasunagatik egiten dira gauzak txarto. Nik behin e-mail bat jaso nuen eta hornitzaile guztienak ere agertu ziren bertan" 31-45 Vitoria-Gasteiz*

*"Nik enpresan datuak erabiltzen ditut, eta batzuetan datuekin gauzak egiten dituzu jakinda ez direla zuzenak; baina, ez badut hori egiten, ezin dut funtzionatu"*  
46-65 Donostia

- **DATUEN BALIO EKONOMIKOA:** ustez enpresa pribatuaren helburua **diru irabaziak lortzea da**, eta datuak eta informazioa dira hori lortzeko bitarteko garrantzitsuenak enpresa munduan. Horregatik, esan daiteke datu pertsonalak erabiltzen dituztela **merkataritza helburuekin eta irabaziak ahalik eta handienak izan daitezen.**

*"Datuak zaintzen dituzte dirua balio dutelako" 46-65 Bilbao*

*"Ni ez naiz enpresa pribatuaz fidatzen, nire datuak saldu egin ditzaketelako" 46-65 Donostia*

*"Gogaikarriak dira. Vodafonetik joan arren, deika segitzen dute. Oso nekagarriak dira" 46-65 Bilbao*

*"Travel txartela ere zer? Horrek esan nahi du baten bat ari dela gure kontsumo historiala jasotzen denbora luzez" 46-65 Bilbao*

### 3.4. Datuak erabiltzen dituzten agenteak



#### 3.4.2 ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ETA DATU BABESA

- Herritarrek **konfiantza handia dute administrazio publikoengan** eta uste dute ondo tratatzen dituztela haien datu pertsonalak, **eta ez zaie burutik pasatu ere egiten administrazioek datuak txarto erabiliko dituztenik.**

Bi arrazoi daude horretarako:

- **INTERES EKONOMIKORIK EZ DUTELAKO:** beraz, gehienei ez zaie iruditzen datuak saldu edo manipulatu ditzaketarik.

*"Badakit Ogasunak ez duela nire daturik saltzen" 31-45 Donostia*

*"Administrazio publikoa ez dabil salerosketetan nire datuekin" 31-45 Donostia*

- **KONTROL ZORROTZAK DAUDELAKO:** uste dute **administrazioek dituzten datuak oso ondo kontrolatuta daudela** eta funtzionarioek datuak nola erabiltzen dituzten ere bai, erabilera bidegabeak egiteko aukera gutxi utziz.

*"Administrazioaz fidatzen naiz bai, ez dagoelako interesik tartean eta kontrol zorrotza dutelako" 31-45 Vitoria-Gasteiz*

*"Administrazioa oso zorrotza da" 46-65 Bilbao*

- **BABES BEREZIA DUTEN DATUAK DAUDELAKO:** iruditzen zaie badirela zenbait **datu** (Ogasuna eta Osasuna) administrazio publikoak modu berezian tratatzen dituenak, **eta datu horiek zabaltzea ia ezinezkoa eta pentsaezina dela.**

*"Kontuak eta datu klinikoak*

*ez dituzte ematen" 46-45 Bilbao*

*"Osasun datuek ez naute hainbeste kezkatzen,*

*ematen duelako ez dituztela ukitzen" 31-45 Bilbao*

## 3.4. Datuak erabiltzen dituzten agenteak



### 3.4.2 ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ETA DATU BABESA

- **DATUAK BABESTEKO LEGEA EZAGUTZEN DUTELAKO:** herritarrek uste dute datuak erabiltzen dituzten administrazioko langileak eta funtzionarioak **oso ondo prestatua daudela eta oso ondo dakitela datuak nola babestu eta tratatu behar diren**. Aitzitik, enpresa pribatuan, **prestakuntza faltaren ondorioz**, ikusten dituzten akatsak, **ez dituzte aipatu ere egiten** administrazioaren esparruan.

*"Administrazioan prestatuta daude. Badakite zer egiten duten" 46-65 Donostia,*

### Diskurtsoaren bilakaera 2007-2014

- Bere horretan mantentzen da, datuen erabilera dela-eta, **administrazio publikoekiko agertzen zuten konfiantzari buruzko diskurtso soziala eta enpresa pribatuekiko agertzen zuten mesfidantzari buruzkoa.**





# 4. Kapitulu a

## Gizarte diskurtsoa administrazio gardentasunaren aurrean



4.1. Kontzeptua deskodetzea.

4.2. Adm. publikoen jarrera gardentasunaren aurrean

4.3. Gardentasun administratiboaren mugak

4.4. Administrazio gardentasunaren agertokiaren gaineko balorazioa.

## 4.1. KONTZEPTUA

### DESKODETZEA



## 4. Gizarte diskurtsoa administrazio gardentasunaren aurrean

### 4.1. KONTZEPTUA DESKODETZEA

- Herritarrei **ezaguna** egiten zaie "gardentasunaren" kontzeptua, **gertutik ezagutzen** dutela dirudi eta terminoari buruzko **diskurtso sakon samarra** dute. Dena den, gardentasuna **nahikoa kontzeptu berria** dela uste dute, **"modan" dagoela eta noiznahi agertzen dela agente politikoaren diskurtsoan.**

*"Orain modan dago administrazioan eta alderdi politikoetan zenbat kobratzen duten esan beharra" 31-45 Bilbao*

*"Orain gero eta gehiago entzuten da gardentasuna, ustelkeria kasu piloaz azaleratzen ari denean" 31-45 Donostia*

- Kontzeptua sakonago aztertuz gero, herritar gehienek **administrazio gardentasunarekin** lotzen dute, administrazioak herritarren esku jartzearekin **bertan egiten duen kudeaketa ekonomikoari eta funtzionamenduari buruzko informazioa.**

"Kargu publikoei  
buruzko informazioa"

"Soldata eta dieten  
berri izatea"

"Arlo bakoitzeko  
aurrekontuen berri ematea"

"Obrak esleitzeko  
irizpideak zehaztea"

"Langile bakoitzaren  
betebeharrak eta  
curriculuma"

"Goi-kargudunen  
izendapenak"

*"Gardentasunak balio du diruaren prozesu osoari jarraitzeko, diru bilketa egiten denetik esleitu arte, eta horrela ikusi ea zer gertatzen den bidean" 18-30 Vitoria-Gasteiz*

*"Guk zergak ordaintzen ditugu eta eskubidea dugu jakiteko zer egiten duten guztion baliabideekin, ea zertan gastatzen duten guri kobratzen digutena" 46-65 Bilbao*



## 4. Gizarte diskurtsoa administrazio gardentasunaren aurrean

### 4.1. KONTZEPTUA DESKODETzea

- Era berean, herritarrek diote **administrazio gardentasunak esan nahi duela informazio hori hainbat baldintza betez eman behar dela :**

➤ **Egiazkotasuna.** "Gardentasuna da garrantzi handiena duena jakitea faltsutu gabe" 31-45 Vitoria-Gasteiz

➤ **Irisgarritasuna,** hainbat eratakoa:

❖ **Administrazioak datua emateko joera izatea.** "Datuak oztoporik gabe atzitzea, ez ibiltzea nahita ezkututzen, eta datuak atzitzeko asko ordaindu behar ez izatea" 31-45 Bilbao

❖ **Zer egin behar den argi izatea.** "Guk jakiteko moduan zein informazio eska dezakegun eta nola" 18-30 Vitoria-Gasteiz

❖ **Ulertzen erraza den formatu batean ematea.** "BOE ulertzea oso zaila da. Ez dakit horrela egiten duten gero haiek esateko <<gardenak gara, baina hain ilun jartzen dugu, ez duzula ezer ulertuko>>" 31-45 Bilbao

➤ **Azkartasuna eta gaurkotasuna.** "Orain informazioa web bidez eskuratu daiteke, izapideak egin, eskabideak ..." 31-45 Vitoria-Gasteiz



Herritarrei iruditzen zaie administrazio gardentasuna berez informazio transmisioa dela, kalitate irizpide batzuekin burutzen dena, diru publikoarekin egiten diren gastu guztiak arrazoitzeko balio duena.

## 4. Gizarte diskurtsoa administrazio gardentasunaren aurrean

### 4.1. KONTZEPTUA DESKODETzea

- Hala ere, herritarrek administrazio gardentasunari buruz duten ikuspegiari eragin handia du egungo testuinguru politikoak (ustelkeriak); izan ere, horrek egiten baitu gardentasunari buruzko diskurtsoa hain kritikoa izatea, hau da, herritarrek honakoa pentsatzea:

- Alderdi politikoen azpijoko bat dela eskuak garbitzeko.

*"Saiatu nahi dute haien ospea garbitzen, hain da penagarria. Baina ez dago atzera bueltarik" 31-45 Donostia*

*"Azkenean itxurakeriagatik egiten da dena. Eskuak garbiak dituztela adierazteko" 18-30 Vitoria-Gasteiz*

- Hauteskunde eslogana dela.

*"Ez dakit nork sinesten dituen halako gauzak, politikoei ere ez. Kasualitatez orain agertu dira, hauteskundeak heltzearekin daudenean..." 31-45 Donostia*

*"Ahoa betetzen zaie gardentasunaz. Esan eta esan ari dira gau eta egun ez dakit zenbat mitinetan; baina ez dugu lortzen jakin behar duguna jakitea" 18-30 Bilbao*

- Mesfidantza handia administrazioek ematen duten informazioarekiko, bai kopuruaren aldetik bai kalitatearen aldetik.

*"Ezin gara gardentasuna delakoaz fio, ematen dituzten datuak egiazkoak diren... Gainera, saiatzen dira ilunak izaten, legeak usten dien neurrian" 31-45 Bilbao*

*"Argi dago dena moldatzen dela, baina gardentasun handiagoa egongo da izapideak eta baldintza publikoak diren tokietan" 31-45 Bilbao*



Gardentasunaren instrumentalizazio politikoak penalizatu egiten du  
administrazioa kontrolatzeko tresna gisa zuen balorazio ona.

4.2. ADMINISTRAZIO  
PUBLIKOEN JARRERA  
GARDENTASUNAREN  
AURREAN



## 4. Gizarte diskurtsoa administrazio gardentasunaren aurrean

### 4.2. ADM. PUBLIKOEN JARRERA GARDENTASUNAREN AURREAN

- Iruditzen zaie **administrazio publikoek ez dutela gardentasunaren aldeko joerarik**: talde dinamiketan parte hartu duten pertsona gehienek uste dute administrazioa **gardena bada, obligazioz dela eta ez hainbeste bokazioz**.

"Derrigorrezko informazioa ematen digute, alde egin dezagun"

"Nahi dutena emate dute"

"Zalantzarik badago, EZETZ esaten dizute"

- Jarrera hori gauzatuta ikusten da **administrazioen iluntasunari buruzko** zenbait adibidetan:
  - **Informazio erreserbatua izatea.** "Politiko batek bidaiia egiten du beste batekin elkartzeko Tailandian, eta ezin dugu jakin zenbat diru gastatu duen hotela, abioia, afariak ... ordaintzeko" 31-45 Donostia
  - **Lehiaketak esleitzea, beka eta diru laguntzak.** "Nik uste dut subjektibo samarrak direla beka ematean, prozesuak ilunak izaten dira" 18-30 Vitoria-Gasteiz
  - **Karguak izendatzea eta horien soldatak.** "Askotan ez dago jakiterik zein ardura duten kargu politikoek, zein aurrekontu duten eta zein helburu lortzen duten" 18-30 Bilbao
  - **Dedikazio eskusiboa.** "Argi egotea kargu bikoiztasunik dagoen, edo kargu publikoaz gain, beste lanbideren bat duten, haiek eta senideek ere bai" 46-65 Bilbo



Herritarrek uste dute administrazioan jardunbide desagokiak daudela, eta batez ere horregatik ez duela batere gustuko administrazioak gardentasuna.

## 4. Gizarte diskurtsoa administrazio gardentasunaren aurrean

### 4.2. ADM. PUBLIKOEN JARRERA GARDENTASUNAREN AURREAN

- Baina, pertzepzio ezkorra izan arren, herritarrek onartzen dute **azken urteotan aurrerapen handia gertatu dela gardentasunari dagokionez euskal administrazioetan**, eta iruditzen zaie Estatuan aitzindariak direla.

*“Asko aurreratu dugu euskal administrazio publikoetako gardentasunaren arloan Europarekin alderatuz gero; baina, Estatu Batuekin alderatuz gero, Pleistozenora goaz”  
31-45 Vitoria – Gasteiz.*

- Pertsonei eskatu genienean **gardentasunaren arloko aurrerapenaren adibideak** jartzeko, **nekez aurkitzen zituzten**, eta gehienez ere honakoa aipatzen zuten:

- **Bilbo** eta Bilbori emandako saria gardentasunaren esparruan.

*“Bilboko udala lehenen geratu da gardentasunaren arloan, nahiz eta uste dudan itemetan ez direla agertzen jendearen soldatak. Informazioa zegoen, webean datuak jakiteko gaitasuna” 31-45 Vitoria – Gasteiz.*

- Tokiko administrazioan **udalbatzen aktak argitaratzen dituzte** webean.

*“Nik badakit Etxebarrin behintzat udalbatzak grabatu egiten dituztela eta Youtuben ipintzen dituztela” 31-45 Bilbao.*

- Maila txikiagoan, baina herritarrek **parte hartzeko guneak** aipatu zituzten... ..

*“Badira 4 edo 5 urte Irekia martxan dagoela” 31-45 Vitoria-Gasteiz”*

*“Hainbat gairi buruzko bilerak egiten dira, eta mahai-inguruak, eta talde batzuk ere badaude, zer egingo duten eta nola esaten dizutenak” 18-30 Vitoria-Gasteiz*

## 4. Gizarte diskurtsoa administrazio gardentasunaren aurrean

### 4.2. ADM. PUBLIKOEN JARRERA GARDENTASUNAREN AURREAN

- Bestalde, **administrazio guztietan antzeko gardentasun maila ikusten dute**, eta baten alde egitekotan, udalen alde egiten dute, uste dutelako **informazioa argitaratzeko eta emateko joera handiagoa dutela** arrazoi hauengatik:

- **Tokiko administrazioko langileak herritarrengandik gertuago daudelako** eta harreman pertsonalak daudelako tartean.

*"Bertan dagoen pertsonaren arabera ematen dute informazio gehiago ala gutxiago. Behin laguntza bati buruzko informazioa eskatzera joan nintzen, eta egun batean gauza bat esan zidaten eta hurrengoan beste bat" 18-30 Bilbao*

*"Bilboko Udalera joan nintzen obra bat egiteko baimena eskatzera, eta esan zidaten nire etxe barruan batek baino ez zuela eskatu sukaldea konpontzeko obra baimena... aho bete hortz geratu nintzen" 31-45 Bilbao*

- **Herritarren kontrolpetik gertuago daudelako, batez ere, parte hartzearen bidez.**

*"Tokikoa gardenagoa da. Gaztediaren Kontseilua bezalako lekuak dituzu, eta hara joanda errazagoa da datuak eskuratzea, ez dizkizute hainbeste aitzakia ipintzen" 18-30 Vitoria-Gasteiz*

*"Ni joan nintzen galdetzera ea zenbat kobratzen duten eskala jakin bateko funtzionarioek, eta esan egin zidaten" 46-65*

- **Aurrekontu erabilgarritasun txikiagoa dutelako**, eta horrek jardunbide desegokien arriskua gutxitzen du.

*"20 mila biztanleko udal batean jakin dezakegu zertan gastatuko duten dirua eta non lan egiten duen langile bakoitzak, baina 160 milakoan agian ez" 31-45 Donostia*

*"Ez da gauza bera 5 € baino ez dituen diru-zorro batetik dirua lapurtzea ala 500 dituen batetik. Errazagoa da gehiago dagoen tokitik hartzea" 46-65 Donostia*

## 4. Gizarte diskurtsoa administrazio gardentasunaren aurrean

### 4.2. ADM. PUBLIKOEN JARRERA GARDENTASUNAREN AURREAN



Ez da erraza administrazio gardentasunaren arloko jardunbide egokiak azpimarratzea bizi dugun testuinguruan, baina udalek herritarrekin harreman estuagoa dutenez eta aurrekontu txikiagoa dutenez, herritarrek administrazio gardenenak direla uste dute. Batez ere udal txikienak.



## 4.3. GARDENTASUN

### ADMINISTRATIBOAREN MUGAK




## 4. Gizarte diskurtsoa administrazio gardentasunaren aurrean

### 4.3. GARDENTASUN ADMINISTRATIBOAREN MUGAK

- Herritarren diskurtsoan **berez agertzen den elementu bat da administrazio gardentasunari mugak jarri beharra.**
- Parte hartzaileei eskatu genien zehazteko ea non kokatu behar ziren **gardentasunaren mugak**, eta bat etorri ziren ondoko gogoetaren gainean:

**Bai**, gardentasuna funtsezkoa da...


... **administrazioekin** zer ikusia duen orotan



Beste era batera esanda, **izaera publikoa** duen orotan

**EZ** da funtsezkoa ...

... **pertsononekin** zer ikusia duten kontuetan



Azken finean, muga nagusia **izaera pribatuko** informazioan kokatu behar da.

## 4. Gizarte diskurtsoa administrazio gardentasunaren aurrean

### 4.3. GARDENTASUN ADMINISTRATIBOAREN MUGAK

- Ikusten denez, herritarren iritziz, **interes publikoa egon ala ez egon**, horren arabera koka daiteke informazio edo datu bat **gardentasunaren** esparruan ala **pribatutasunaren** esparruan.
- Baina, badira **esparru bi**, bata diru publikoarekin lotuta eta bestea arau-hausteeekin eta delituekin lotuta, eta herritarrentzat zailago da adostea ea horiek interes publikoko ala pribatuko elementuak diren.

Izaera publikoko datuak direla diotenek emandako arrazoiak

**DATU MOTAK**

Izaera pribatukoak direla diotenek emandako arrazoiak

#### DIRU PUBLIKOA

•Diru publikoak trazabilitate osoa eta mugarik gabekoa izan behar du, iruzurrik ez gertatzeko (erabateko gardentasuna).

**Laguntza publikoen onuradunak identifikatzea:** bekak, diru-laguntzak, DBI

•Datu horien berri izateagatik ez da desagertuko iruzurra; **gizarte bazterketa** eragin dezake, ordea.

#### ARAU-HAUSTEAK ETA DELITUAK

•Arau-hausteei eta delituei buruzko datuak publikoak izan behar dute.

**Delitugileak identifikatzea:** bortxatzaileak, pederastak, iruzurgileak...

•Egoera horretan dauden pertsonak identifikatuz gero, "estigmatizatu" egin daitezke eta gizarteratze eskubidea eta bizimodu normalizatua izateko eskubidea ukatu.

#### GARDENTASUNA ALDARRIKATZEN DUTE

**"DISTANTZIATIK" ABIATUTA ERAIKITAKO DISKURTSOA**  
(gutxiengoaren jarrera)

#### PRIBATUTASUNA ALDARRIKATZEN DUTE

**"ENPATIATIK" ABIATUTA ERAIKITAKO DISKURTSOA**  
(gehiengoaren jarrera)



Desberdintasunak desberdintasun, herritarrak bat datoz esatean gardentasunari mugak jartzea funtsezkoa dela, eta, mugak jartzeko, informazioak interes publikoa ala pribatua duen hartu beharko dela irizpidetzat.



















































